




Abraham Olano Anoetako kiroldegi berria, herritarrek erabiltzeko prest

INAUGURAZIOA ▶ Atzo burutu zuten ekitaldia, txirrindulari anoetarra eta agintariak bertan zirela

PROTESTA ▶ Ezker abertzaleak «herriaren hitza errespetatzea» eskatu zuen bertan ▶ 4



Abraham Olano eta agintariak, atzo, kiroldegiko inaugurazioko une batean. I. GARCIA



N. URBIZU

PATXI TENA ▶ KUBA PALANTE ELKARTEKO KIDEA

«Kubarekin kultur trukea egitea da ideia»

Kubako koadroen erakusketa jarri du Alegiko Jubilatuen tabernan ▶ 5

IBARRA ▶

Bertako produktuen erakusleiho, 'Ibarra, azoka eta piparra'

Etzi egingo dute azoka, egun guztian zehar, herriko hiru gunetan ▶ 6

Gure gomendioa



Pilar Miró
Diego Galán



Cocinar de cine
Rabier Gubierres / J.M. Gubierres



Zaharregia, taldegiak agian
Satoru



Orreka TX
Quercus Enstropina



elkar

elkar ezagutzen dugulako

TOLOSA ▶ KIROLA

Tolosa Kup-eko lehen partidak jokatuko dira asteburu honetan

Ligaxka sistema erabiliko dute, denek denen aurka jokatuz; larunbat eta igande arratsaldean izango dira norgehiagokak

ESTI EZEIZA

Bihar abiaraziko dute aurtengo Tolosa Kup Txapelketa. Denera, 39 talde ariko dira lehian, hiru hilabetetan zehar. Lehenengo hamar partidak asteburu honetan jokatuko dituzte, eta horrela jarraituko du asteburuero, abenduaren 16ko finalera arte. Egun honetan, jaialdi berezi bat egingo dute parte-hartzaileek.

Aurten, eskualdeko gazteek eta Tolosako Gazteria Sailak antolatu dute txapelketa. Izan ere, joan den urteetan koadrila bakarra arduratzen zen, eta honek lan handia suposatzen zuen. Horregatik, oraingoan, antolakuntza lana komisioka burutu dute. Modu honetan, funtzionamendu honekin, zenbait bilera egin dituzte taldeetako ordezkarien eta Gazteria Sailekoen artean. Denen iri-



2005eko Tolosa Kup festako irudia; Tolosa-Ibarra partida. I. TERRADILLOS

tziak kontuan hartuz osatu dutelarik egutegia.

Txapelketa, ligaxka sistema erabiliko dute, beraz, guztiak guztien aurka lehiatuko dira. Partiden kontrolari dagokionez, gainontzeko taldeetako jokalariek arduratuko dira horretatik. Hala, 39 taldeak zappi multzotan banatu dituzte, eta partidak larunbat eta igande

arratsaldetan jokatuko dituzte, Uzturpe Kiroldagian.

Asteburuko partidak

Bihar, 16:10ean jokatuko dute lehenengo partida, eta 35 minuturen ondoren hurrengoa hasiko da. Horrela, 19:40ak arte. Hurrengo hauek izango dira jokatuko diren norgehiagokak:

TALDE PARTE-HARTZAILEAK ▶

A TALDEA

- A1. Anayet Ibarra.
A2. I Strawberry.
A3. The Patxis.
A4. Makalak.
A5. Txobxeroak eta CIA.

B TALDEA

- B1. Uzturre Klub.
B2. Oargi ttipi ttpa.
B3. Txikiteroak.
B4. Berriz saiatzeagatik.
B5. Asta Pistols.

C TALDEA

- C1. Baktxus.
C2. Transporte Escolar.
C3. Txoko txiki.
C4. Zaleak.
C5. Elorri.

D TALDEA

- D1. Rayo Vaticano.
D2. Itaie.
D3. Samberoak.
D4. Ordago.
D5. Pug Kung-fu.

E TALDEA

- E1. Ama Dambalam.
E2. Sinsalus.
E3. Bikutz.
E4. Plaza Cristales.
E5. Itzuli taberna.

F TALDEA

- F1. Egunkaria aurrera.
F2. U.R.T.
F3. Ekaitz.
F4. Recambios Ibarra.
F5. Amaro.

G TALDEA

- G1. Zierbi Koz
G2. Igaratz.
G3. Como pollo sin cabeza.
G4. Pub Txanpa.
G5. Danon Txokoa.

H TALDEA

- H1. 30 xentimo.
H2. No somos nadie.
H3. Errekalde.
H4. Papa movil.

16:10ean D2-D5en aurka; 16:45ean, E1-E4rekin; 17:20ean, E2-E5en kontra; 17:55ean, F1-F4rekin; 18:30ean, F2-F5en aurka; eta 19:05ean, G1-G4en kontra. Partida hauen kontrol lana Pub kung-gu, Pub Txanpa eta Recambios Ibarra burutuko dute, eta arduraduna Pub Kung-Fu izango da.

Eta etzi, igandearekin, hiru neurketa izango dira jokoan. Lehena, 16:45ean izango da, eta G2k G5en aurka jokatuko du. Jarraian, H2 eta H5en garaia izango da. Eta azkenik, 17:55ean, A1 eta A5 lehiatuko dira. Partida hauen kontrola Txotxeroak y CIA burutuko du, eta arduraduna Pub Kung-Fu izango da.

IBARRA ▶ KULTURA

Eskaintza zabala aurten ere, kultur lantegietan

Astelehenean amaituko da izen-emate epea

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, aurten ere kultur tailer ugari entolatu dituzte Ibarra. Hauek, Benito Izagirre Kultur Etxean gauzatuko dituz-

te, eta lantegi guztiak ikasturte osoko iraupena izango dute.

Ikastaroetako izen-ematea Kultur Etxean bertan egin behar da, hil honen 25a baino lehen.

IKASTAROAK ▶

Lantegia	ordutegia	eguna	prezioa
Ibarra			
Areto dantzak (sakonketa)	18:00-20:00	osteguna	118,60 euro
Areto dantzak (hastapena)	20:00-22:00	osteguna	118,60 euro
Argazkia (hastapena)	18:30-21:00	astarte eta osteguna	147,60 euro
Argazkia (sakonketa)	18:30-21:00	astarte eta osteguna	147,60 euro
Egur taila	17:00-19:00 / 19:00-21:00	astarte eta osteguna	147,60 euro
Ehiziriak	17:30-19:30	astarte	118,60 euro
Errestaurazioa	19:00-21:00	astelehena eta asteazkena	147,60 euro
Sabel dantza	18:30-20:30	astarte	118,60 euro
Masaia	18:30-20:30	osteguna	118,60 euro
Pintura	15:30-17:30	astarte eta osteguna	147,60 euro
Eskulanak	17:30-19:30	astelehena eta asteazkena	147,60 euro

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



TOLOSA ▶

Voith Gorostidiko etxebizitzetan izen-ematea

Arramele auzoko Voith-Gorostidi eremuko Babes Ofizialeko eta lokaletako etxebizitzetan eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 2a izango da. Tolosako udal-tertxeko erregistro orokorrean egin behar dira izen-emateak, eta aipaturiko egunean 13:00etan itxiko dute epea.

KIROLAK ▶

Aurrera-Saiatz eta Zazpi-Iturriren derbia, gaur

Aurrera Saiatzek ondorengo partidak jokatuko ditu gaur: Aurrera-Saiatz Zazpi-Iturriren aurka Ibarren, 20:00etan, eta ondoren, Aurrera-Saiatz 2 Anaitasuna 1-en aurka, Ibarren; Zazpi-Iturri 1 Aurrera-Saiatz-en aurka, Amezketan, 21:00etan; Aurrera-Saiatz 2 Añorgakoen aurka, 19:00etan, Añorgan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leizaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Nola topatu dezakegu zoriontasunerako bidea?

Sanatana Dharma Yoga eskolak kontzientzia globalari buruzko jardunaldiak antolatu ditu, 'Orainean izatea eta bizitzearen esker ona' leloarekin

IÑIGO TERRADILLOS

Zazpigarren urtez, kontzientzia globalari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Sanatana Dharma Tolosako Yoga elkarteak. Datorren asteleheneetik ostiralera, hilaren 25etik 29ra, izango dira hitzaldiz eta tailerrez osaturiko jardunaldiok, eta *Orainean izatea eta bizitzearen esker ona* leloa izango dute oinarri.

Hitzaldiak asteleheneetik ostiralera izango dira, doan, Kultur Etxean 20:00etan. Alorreko mediku, terapeuta, irakasle nahiz psikologoek eskainiko dituzten hitzaldien bidez, «autozagutzaren bitartez gure bizitza nola hobetu dezakegun» azalduko dute, «osasuna, ongizatea, bakea, zoriona eta gure esentziarekin bat egotea lortzearen». Interesa duten herritar guztiei irekiak direla adierazi dute antolatzaileek, eta halaber, komunikazio, gogoeta eta zabalkuntza foru bat sortzeko asmoa dutela gaineratu dute.

Tailerrei dagokionez, Sanatana Dharma Tolosako Yoga eskolan izango dira, goizez 09:30etik 11:30era, eta arratsaldez 17:00etatik 19:00etara. Hitzaldietan bezala, eskainiko dituzten lau tailerretan sarrera doakoa izango da, baina azken bietan, hau da, asteazkeneko *Soinuaren boterea* eta osteguneko *Isiltasunaren boterea* tailerretan ikasle aurreratuek soilik izango dute parte hartze-ko aukera. Bestalde, plaza kopurua mugatua denez, Yoga eskolako telefono zenbakira (943 11 86 68) deitu beharko dela tailerretera joan aurretik jakinarazi dute.



«Zoriontasunaren bidea erakutsi» nahiko dute Yoga eskolakoeak. HITZA

«Orainean bizi»

Orainean bizitzea eta izatearen esker ona dira jardunaldi hauen ildo nagusia. Hala, antolatzaileek diotenaren arabera, «zoriontasunaren sekretua norberaren barnealdean dagoela jakitea da», eta helburu horrekin, «jendeak zoriontasunaren bidea topatzeko helburuarekin» hain zuzen, antolatu dituzte jardunaldiak. «Zoriontasunarekin gaur bertan egin dezakegu bat, une honetan; eta hori lortzea gure esku dago», gehitzen dute.

Bestalde, zoriontasunarekin bat egiteko bilatze une hori ez dela bizitzaren ikuspegi pragmatiko bat diote. Hala, norberaren barnealdean bilatzearena aspalditik erabiltzen dela azaltzen dute, eta «ederki frogatu da arrakasta handia lortzen dela zoriontasunerako bidean; beste inongo programekin ez da orain artean horrelakorik lortu».

EGITARAUA ▶

TAILERRAK

Astelehena, hilak 25.
Jarreraren boterea. Asana tailerra-ariketa egokituak.

▶ Sarrera doan.

Astearte, hilak 26.

Pranayamaren boterea. Erlaxazioa eta arnasketak tailerra.

▶ Sarrera doan.

Asteazkena, hilak 27.

Soinuaren boterea. Mantra tailerra.

▶ Sarrera doan.

Osteguna, hilak 28.

Isiltasunaren boterea.

Meditazio eta kontzentrazio tailerra.

▶ Sarrera doan: ikasle aurreratuek soilik.

HITZALDIAK

Astelehena, hilak 25.

▶ *Hemen eta orain.*

▶ Juan Jose Urbieta *Vasishtha* yoga eta meditazio irakaslea eta hazkunde pertsonalaren orientatzailea.

Astearte, hilak 26.

▶ *Bizitzaren asmoa.* ▶ Bharat Martin yoga eta meditazio irakaslea, eta talde terapeuta.

Asteazkena, hilak 27.

▶ *Izan: barne bakean egotea.*
▶ Manuel Paz Macazaga *Madhava* meditazio eta yoga maisua.

Osteguna, hilak 28.

▶ *Baliagarri izatearen grazia.*
▶ Javier Aizpiri *Kalki* yoga eta meditazio irakaslea, bioespinologoa eta yoga irakasleen hezitzailea.

Ostirala, hilak 29.

▶ *Zientzia eta yoga.*
▶ Alfredo Iglesias *Druva* yoga eta meditazio irakaslea, sendagile homeopata eta medikuntza bedikoaren hezitzailea.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Oporraldi luzean egindako gastuei aurre egin beharra, seme-alaben eskolako materiala eta arropak, ikastaroetako matrikulak... Nola egiten diozu aurre irailko aldapari?» Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia! ▶



Jai
zoriontsuak
pasa!

ikastolako tabernan elkar ikusiko gara

San Miguel, 5 • IRURA • Tel.: 943 69 43 74

ANOETA ▶ AZPIEGITURAK

Abraham Olano kiroldegia, erabiltzaileentzako prest

Txirrindulari anoetarrak eta agintariek egin zuten, atzo, inaugurazio ekitaldia

IMANOL GARCIA

Anoetako Abraham Olano kiroldegia inauguratu zuten atzo. Ekitaldian izan ziren kiroldegia izena eman dion txirrindulari anoetarra, Joxe Juan Gonzalez de Txabarri Gipuzkoako Ahalduen Nagusia, Fidel Azpiroz alkatea, Fernando Tappia Gizarte eta Erakunde Harremanetarako foru diputatua, Rafa Uribarren Landa Inguruarenean Garapenerako Foru diputatua eta Jesus Mari Arsuaga Kirol zinegotzia. Herritar ugari bildu zen kiroldegi berriaren eta baita eskualdeko herrietako hainbat alkate ere.

Ohiko aurrekuarekin ekin ziztaion ekitaldiari, eta ondoren zinta ebaki zuten agintariek, kiroldegia inauguratuzat emanaz. Inaki Albiztur parrokoak bedeinkapena eman zion azpiegitura berriari eta Angel Mari Peñagarikanok agurra eskaini zuen bertsoan.



Abraham Olano, oroigarri bezala jasotako plakarekin. I. GARCIA

Horren ondoren, hitza hartzeko unea iritsi zen. Fidel Azpiroz alkatea izan zen lehenengoa. Eskerrak eman zizkien herriari kiroldegia izateko zerkusia izan duen orori, tartean Foru Aldundiari eta aurreko legegaldietako alkate eta zinegotziei. Kiroldegia Abraham Olano izena jartzearen arrazoia

azaldu zuen ondoren: «Herriaren izena munduan zehar zabaldu duen kirolaria izan da eta horregatik erabaki du Udalak bere izena jartzea».

Olanok, bere aldetik, ez zituela «eskerrak jaso behar, eman baizik, kiroldegia nire izena jartzeagatik», azaldu zuen. Harmailetan zeuden gaz-

te eta haurrei zuzendu zitzaizen gero, kirola egitera animatuz. Joxe Juan Gonzalez de Txabarri kiroldegia eraikitzeko «Udalak egindako ahalegina» aipatu zuen.

Jarraian, Anoetako Udalak plaka bana eman zien oroigarri gisa Olanori eta Gonzalez de Txabarriri. Ekitaldiari amaiera ematen joateko, Kea ahots taldeak emanaldia eskaini zuen. Azkenik, inaugurazio ekitaldi- ra joandakoek lunch-a zuten zain, kiroldegiko instalazioak bisitatu ondoren. Biharko, berri- z, ate irekiko jardunaldia antolatu dute eta astelehenean hasiko da kiroldegia zerbitzua eskaintzen.

Bere aldetik, ezker abertzaleak protesta ekitaldia burutu zuen inaugurazioan. Pankarta baten bitartez, «herriaren hitza errespetatzea», Alarcos, Arsuaga eta Egurza zinegotziek dimititzea eta «lapurtutako aukiak» itzultzea eskatu zuten.

DATUAK ▶

EZAUGARRIAK

- ▶ Kirol anitzeko pista (968,5 m²).
- ▶ Erabilera anitzeko bi gela (135,30 m² eta 105,31 m²).
- ▶ Giharketa gela.
- ▶ 205 pertsonentzako harmailak.
- ▶ Aldagelak, leihatilak,...

IKASTAROAK

Hasiera batean aurreikusten diren ikastaroak:

- ▶ Pilates.
- ▶ Yoga.
- ▶ 3. adinerako gimnastika.
- ▶ Aerobik.
- ▶ Dantza tailerrak haurrentzat.
- ▶ Aretu dantzak.
- ▶ Mantenu gimnastika.
- ▶ Jarduera anitzak haurrentzat.

ATE IREKIKO JARDUNALDIA

Biharko antolatu dute:

- 10:00.** Tolosaldeko ikastolotako haurren arteko partidak.
- 13:00.** Lunch-a herritarrentzat.
- 16:00-20:00.** Haurrentzako puzgarriak.
- 17:00.** Txokolatada.
- 17:00-19:00.** Giharketa gelaren doako erabilera.

VILLABONA ▶ ANTZERKIA

Poxpolo, Mokolo eta Konpainiaren 'Zirkoa' obraren azken saioa Gurean

I. GARCIA

Poxpolo, Mokolo eta Konpainiak *Zirkoa* obraren azken emanaldia eskainiko dute bihar Gurea aretoan, 17:00etatik aurrera. Bi urteetan zehar 80 saiotik gora egin ondoren, Villabonan amaituko dute *Zirkoa* lanarekin eta beste bat prestatzen hasiko dira. Hain justu, Gureako emanaldia ba-

liatuko dute *Zirkoa* obraren DVDa grabatzeko. Saio berezia izango da, beraz, biharkoa.

Zirko baten gertatzen diren peripeziak kontatzen dituzte bi pailazoek eta bere lagun taldeak. «Pozik gaude lan honekin», azaldu dio Poxpolok TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI, «eta ikusle goak ere harrera ona egin dio». Ohi den bezala, istorioez gain, abestiek ere bere

tartea izango dute obran. *Epo itaitaie*, *Oparapapa* edo *Txalo ta txalo* bezalako abestiak entzuteko aukera izango dute Gureara joaten diren haurrek eta euren gurasoek. Poxpolo, Mokolo eta Konpainiakoek deialdi berezia egiten dute eskualdeko haurrei. «arratsaldea ondo pasatzeko eta *Zirkoa* zuzenean ikusteko azken aukera izango delako».



Mokolo eta Poxpolo pailazoak. HITZA



Sartu euskararen Xarean,

Irurako Udalak herritar guztiei eta kanpotik etorriko zaretenei jai zoriontsuak opa dizkizue.

Tel.: 943 69 13 33

Faxa.: 943 69 33 41



Irurako Udala



ALEGIA ▶ ERAKUSKETA



Errea. Koadro hau Maikel Perezek egina da. Picassoren margolanekin antzekotasuna duela esan daiteke, abstrakzio ukituak dituelako. Kontraste handia lortu du sua eta hondo beltzaren artean: honela, erretakoa gehiago nabarmetzen da. Gizarteari egindako kritikatzat uler daiteke. N. URBIZU



Emakumea. Tania Ortega artistak «bera, hura, emakumea» islatu nahi izan du marrazkian. Kolore hotzen arteko tonu beroak eta biziak gailentzen dira, emakumearen irudia nabarmenduz. N. URBIZU

PATXI TENA ▶ KUBA PALANTE ELKARTEKO KIDEA

«Euskal Herria eta Kubaren artean kultur trukea egitea da ideia»

Patxi Tenak 17 urte daramatza Kubara joaten, maleta handi bat hartu eta margotzeko materiala eramaten

NEREA URBIZU

Tolosan bizi da Patxi Tena, baina bihotza Kuban duela agerian utzi du. Kuba Palante izeneko GKEko kidea da Tena. 17 urte daramatza Kubara joaten; hurrengo abenduan hara joateko asmoa du berri.

Zertan datza erakunde?

Kuba Palantek ofizialki 9 urte ditu, baina nik 17 urte daramatzat bertara joaten. Santa Klara herrian gaude, ospitaleetan eta eskola askotan. Gure asmoa arteak ikasten dituzten ikasleei laguntzea da: materiala utzi, beraien margolanak salduz...

Azken pausoa, han ikasi duen margolari bat hona ikastera ekartzeko izango litzateke. Kasu honetan, haiek eginkoak jarri ditugu Alegiko Jubilatuen tabernan ikusgai eta salgai. Txapelketak ere antolatzen ditugu eta materiala banatzen diegu. Ospitaleetan ere lagundu egiten dugu, botikak banatzen, eta abar. Baina diru falta da arazoa. Gure ideia, Euskal Herria eta Kubaren artean kultur trukea egitea da.



N. URBIZU

Zer ikus daiteke koadroetan?

Sormen handia dute margotzeko. Haien onena adierazpena da, espresioa. Kubako erregimenari ere kritika egiten diete.

Zeintzuk dira artista hauek dituzten beharrak?

Batez ere materiala behar dute: arkatzak, papera, margoak... Koadroetan abangoardismoa erraz ikusten da, eta baita politikak ez duela artean eragiten. Geure poltsikotik ordaindutako materiala banatzen dugunean eta umeen aurpegian irribarrea ikustean, asko betetzen duen sententzia izaten da. Horrek asko balio du.

Zergatik Kuba?

Irlak asko gustatzen zaizkit. Lehenago ere irla txikiak bisitatu nituen. Bestalde, pentsatzen dut beste lurralde txiroago batera joango banintz ez nukeela jasango. Afrikak hil egingo ninduke... Ezingo nuke hango miseriarekin eta injustiziekin.



Maitasuneko hirukia. Diomar Perezek berdeak erabili ditu batez ere, hiru arpegi eta sentimendu ezberdin irudikatzeko. Honetan ere, agerian gelditzen da abstrakzioarekiko fideltasun hori. N. URBIZU



Nire hiriburuaren gaineko begirada. Kutsu modernoagoa duten margolanak ere badaude, hau esaterako. Roldan Perezek kolore ilunak erabili ditu kasu honetan, hiriaren hoztasuna areagotuz. N. U.

BIRIGARRO ETA USOTARAKO POSTUEN ENKANTEA ARESON (Nafarroa)

Donostiatik 25 minututara, kotxez postuetaraino joateko aukera. Postuak eginda eta inguruak garbituta.



1. enkantea
Irailak 23 • 19:00etan
2. enkantea
Irailak 30 • 19:00etan
948 510327 • 665 63 96 74

IBARRA ▶ EKONOMIA

ERREDAKZIOA

Ibarra, azoka eta piparra izenburuarekin dator, aurten, Ibarako azoka, Hauspoak antolatuta eta Udalaren laguntzarekin. Etzi izango da eta egun osoa hartuko du.

Hiru gunetan banatuko dute: Lehenengo gunea Idoiaga-Beko Biden izango da. Bigarrena, Emeterio Arrese inguruan eta hirugarrena, berriz, San Bartolome plazan.

Idoiagan kokatuko den azoka zatiak, Xepa Elkartearen eskutik, Ibarako Piparraren 2. Lehiaketa Gastronomikoa jasoko du. Laztik, nazio izaera du eta lurralde bakoitzak ordezkaria izan dezan, antolatzaileek zappi lehiakide gonbidatuko dituzte, lurralde bakoitzeko bana. Guztira, 22 lehiakide hartuko dute parte, horietako asko eskualdekoak izango direlarik.

Bestalde, postuak egongo dira inguruan, jaki eta edariz beteak: mermeladak, pateak, gazta, gauza gozoak... Eta talorik eta sagardorik ere ez da faltako momentuan tripa bete nahi duenarentzat.

Gune horretan, nabarmendu behar da, era berean, azienda izango dela. Bertan izango dira ikusgai Ibarako baserriarrek ekarriko dituzten behiak, txekorrak, zaldiak, txerriak, ardiak, ahuntzak... Gogoratu, azoka egun osoa bada ere, gune hau eguerdira arte egongo dela zabalik.

Emeterio Arresen izango da bigarren gunea eta lehenengo nahiz hirugarren guneen arteko lotura lanak beteko ditu. Izan ere, tokan eta bolotan ibiltzeko aukera izango da batetik. Bestetik, berriz, plaza bitartean panelak izango dira Ibarrari buruzko informazioarekin.

Hirugarren guneari dagokionez, artisautzak beteko du San Bartolome plaza, eta egun osoan zehar, lore lehorrak, keramika, kristala, kamisetak, egurra eta Kultur Etxeko tailerretan landuriko pintura eta ehoziak izango dira ikusgai. Aipatu, gunea ez dela produktua erakusketa hutsa izango, ar-

Bertako produktuen erakusleihu 'Ibarra, azoka eta piparra'

Emeterio Arresen eta Idoiagan goizean, eta San Bartolome plazan egun osoan, hiru gunetan banatuko dute azoka



laz ospatu zen Ibarako azokan egindako argazkia; iruditan, bertako produktuak. IÑIGO TERRADILLOS

tisuek euren lana nola egiten duten ere azalduko baitute.

Lehen eta bigarren gunek eguerdira arte egongo direnez, plazan bilduko da giroa eguerditik aurrera. Batetik, antolatzailen bazkaria izango da, herriko plazan postuak jarri eta lehiaketan parte hartu dutenekin batera. Arratsaldean, herriko bi taldek kirol erakusketa egingo dute.

Musikariek ez da faltako ho-

rrelako egun batean. Hala, 09:00etan dultzaineroen eskutik diana izango da. Eguerdipartean, kalejira izango da Idoiagatik plazaraino eta bazkal ondoren trikitilariak arituko dira jo eta su.

Ibarratik Misio Taldea azokan

Ibarratik Misio Taldeak ere izango du bere tokitoxa ezizko azokan. Helburua, bakarra:

Bombay, Santa Rosa eta Baba, Suyapa berria eta Hal-Halen diharduten proiektuetarako dirua biltzea.

Iaz bezain arrakastatsua izatea espero dute antolatzailerek. Hala, *Ibarra, azoka eta piparra* azokaren esku aukera polita, beraz, egun osoan zehar, Ibarra hiru guneeetan egun pasa ederra egin eta bertako produktuekin begiak eta barrenak gozatzeko.

Trafiko aldaketak

Ibarra, azoka eta piparra azoka dela eta, Ibarra inguruan hainbat trafiko aldaketa burutuko dituzte asteburuan zehar, Udaltzaingok jakitera eman duenez. Aipatu aldaketek, bihar arratsaldeko hiru retan hasiko dira eta etzi arratsaldeko laurak arte izango dute eragina. Guztira, herriko sei puntu ezberdinetan izango dute eragina aldaketek.

San Inazio, Emeterio Arrese, Otarreaga azokoa bai eta inguruko biztanleek ere Tolosarantz edo Berrobirantz joan nahi izanez gero, Idoiaga kaletik Arkaitz Azpiraino doan ibilbidea egin dezakete, Idoiaga eta Beko Bide kaleen arteko bidegurutzean pasagunea itxiko baita, azoka bertan jartzeko.

San Inazio edo Leaburu aldera igarotzeko Tolosatik edo Berrobirantz sartu nahi dutenek, berriz, Txumitxa tabernako zubitik egin beharko dute ibilbidea, Idoiaga kalea Tolosarantz eta Berrobirantz joateko izango baita soilik.

Azoka egongo diren hiru guneeetan —Emeterio Arresen, Idoiagan eta San Bartolome plazan— garajeak dituzten etxeen kasuan, bi puntu izango dira aldatu beharrekoak. Batetik, Idoiaga eta Beko Biden garajeak dituztenek anbulategitik sartu beharko dute. Irteera berriz, orain arte bezela mantenduko dutela adierazi dute Udaletik. Bestetik, Euskal Herria 2, 4 eta 6 zenbakietan lur azpiko garajeak dituztenak Tolosako norabidean irtengo dira.

Aparkatzeari dagokionez, etzi, goizeko zortzietatik gaueko zortzietara ezingo da San Bartolomeko 7 eta 17 zenbakien artean kotxerik utzi. Idoiaga, Beko Bide eta kanpako aparkalekuak ere libre utzi beharko dira asteburuan, bihar, arratsaldeko hiruretan hasi eta etzi arratsaldeko laurak arte. ◀

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurilaritza, Udalebetan eta Erakunde Publikoetan. 943313782.
Harreragileak - Administrari laguntzaileak. behar dira Erakunde Publikoetan. 943313782.

Carpintería ATARI, S.L.
AROTEGIA
Arrotzei mekanikoa. Obrak eta berritalak.
Enbileru eta altzarik osorria. Erabizitateko eta ikal aserretzaleentzako arrotegia.
Tel: 943 69 34 29

DESACRISTAL
Autoaren kristaldegia • Auto furgoneta eta kamioi kristalen muntaia, salmenta eta konponketa
• LAMINA BAIMENDUEN INSTALAKUNTZA
SOLAR-CHECK
TAILERRA: Ibaiondo bailara, 17
8.pabilioia • N-1 errepidea. • 20271 IRURUA Tel: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47

Bat Garajea
Ondo pasa Irurako jaietan!
Tel: 943692205 • Faxa: 943693771 • Ibaiondo Indus.11 • 20271 IRURUA

Joxean
• iturgintza • berokuntza
• aire egokitua • gasa
• inst. industrialak
Jai zoriontsuak opa dizkizue irurar guztiei
Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURUA • Tel/faxa: 943693352 • 656416808

LEITZA ▶ POLITIKA

Elkarretaratzea, Astibia eta kasu bereko inputatuen alde

Atxilotutakoen aurka epaiketa egiten ari dira Espainiako Entzutegi Nazionalan

ERREDAKZIOA

Epaiketarik ez, Igor askatu eta Auzitegi Nazionala Stop leloak buru hartuta, gaur iluntzean, 20:00etan, Lopeneko iturrian eginen duten elkarretaratzean parte hartzeko dei egin du Etxerat-ek.

2003an hasi eta 2005era bitartean, «badaezpada» modura sailkatu zituzten 116 euskal herritarren atxilotutakoaren aurka lehengo astean hasitako epaiketen harira, lagun horiek eta euren senide eta adiskideek hainbat ekimen iragarri zituzten prentsaurrean, Burlatan egindako agerraldian, «epaiketa politikoak eteteko eta Auzitegi Nazionala behingoz ixteko» eskatzea helburu dutenak. Hala, gaur inputatuen herrietan eta auzoetan elkartuko dira.



Astibia atxilotu zutenetik urte betera egindako manifestazioa. HITZA

Aitatutako epe horretan, Euskal Herrian 116 lagun atxilotu zituzten Espainiako Segurtasun Indar desberdinek, Espainiako Auzitegi Nazionalaren eskariz, «badaezpada»; orduko ministro batek «orain, komisaldagian ikusiko dugu zertaz akusatuta» esaldia ere

adierazi izan zuen publikoki, atxiloteta haietaz aritzean.

Eta, «halaxe egin zuten», azaldu zuten senideek agerraldian: «Zergatik gabe atxilotu, inkomunikazio aldian torturatu, epailearen aurrean inolako berme judizialik gabe deklaratu, eta egoera horretan lortuta

ko edota esanarazitako ustezko karguak erantsita 103 lagun auzipetu eta 70 espetxeratu zituzten».

Horien artean dago Igor Astibia leitzarra. 2004ko azaroaren 16ko goizaldean atxilotuta eraman zuen polizia bere etxetik; 18ko gauean Auzitegi Nazionalera eraman eta espetxeratzeko agindua jaso zuen arte, inomunikazio aldian, torturak salatu zituelarik. Etxeraterak argitu duenez, «ez du bere gain akusazio garbirik, badaezpada atxilotu izana besterik». Bi urte eginen ditu laister Navalcarnero (Espainia) kartzelan daukatela.

Astibiaren egoera berean dauden auzipetuen artean, orain «espetxeratze prebentiboan» lau urte betetzera doazen 18 lagunekin hasi dituzte epaiketak.

GIZARTEA ▶

Nafarroa Oinez-erako laguntzaileak behar dituzte

Beran, 'Baietz oraingoan' leloa buru duela eginen dute, urriaren 15ean



Aurtengo logoa. HITZA

ERREDAKZIOA

2000 lagun behar dituzte lanerako Beran egiteko duten Nafarroa Oinez-en. Halako deialdia egin du, aurtengo edizioaren antolatzaile den Labiaga ikastolak.

Urriaren 15ean izanen da Nafarroa Oinez-a, *Baietz oraingoan* lema hartuta eginen dute Berako ikastola horren alde, izan ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren lehen zikloa legez-tatzea aurten lortu badute ere, bigarrena ere hala egitea dute helburu, eta hortaxeko erabiliko dute egun horretan jasoko den laguntza guztia.

Festa hori dagoeneko antolatuta daukate; orain, «egunean berean txosnetan, garbiketean, salmentan, segurtasunean... lan egiteko prest dagoen jendea» behar dute. Prest egonez gero, honako telefono zenbaki hauek jarri dituzte eskura: 600 34 46 55, 671 20 02 94 edo 671 20 02 96.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Hainbesteko kalabazarik jaso?

J. Astibia ▶ Leitzako Gazpillo Txiki baserrian, irudian Martin Labaien bertako nagusiak ondoan duen 52 kiloko kalabaza hori bildu dute. Inguruua 1,79 metrokoa du eta altuera, 0,53koa. Baina ez da ale bakarra, alorrean «handiagoak ere eginen direnak» badituzte, oraindik berde daudenak (eskuinean batzuk). Kalabaza mota hau, aziendentzat izaten da. Aurten «kapritxo» erein zituzten eta «ustekabeen sekula-koak egin!». J. ASTIBIA



iragarki laburrak ▶

SALGAI

Pisua. Leitzan pisua salgai, 100 m², igogailuarekin eta trastelekuarekin. 699 46 13 65.
Txakurkumeak. Setter ingelesa (Leveling) arrazako txakurkumeak salgai. Txertatuak. Gurasoak oilagorretan trebeak. 647 14 40 70.

LANA

Sukaldaria. Tolosaldeko taberna baterako sukaldean dakien

pertsona bat behar da. 686032901.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentukoa. 635 74 52 91.

Psikopedagogoa.

Psikopedagogian lizentziatuak banakako laguntza saioak ematen ditu Tolosan. 670 02 11 22.

Etxeko lanak. Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da goizez. 669 21 33 37.

ZABALA DESGUAZEA




- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA

OKINDEGIA ETA GOZOTEGIA

Gora Sanmielak!
Kale Nagusia, 1 • IRURA
Tel.: 943 69 43 56



Salgai (Tolosa) La Estrella.93m². Egongela, 3 logela, sukaldaria eta bainugela ekipatuak. Garajea aukeran.

Salgai (Tolosa) Korreo kalean 75m². Diseinu eraberritu. Igogailua eraikitze lanetan.

Salgai (Tolosa) Korreo kalean 70m². Eraberrituko. Eskaratz eta teilatu berriak.

Salgai (Tolosa) K/Nagusian 50m²-ko atikoa. Erdi eraberritu.

Salgai (Ibarra) Ibarra 90m². Eraberritu estreinatuko.

Salgai (Araun) 60m²-ko bi pisu eraberritu estreinatuko.

Salgai (Legorreta) Baseri eraberritu, sartzeko prest. 2 solairu 120m²-koak. Eguzkitsua eta bistekin.

Salgai (Zumarraga) Baseria. Bizitzera sartzeko prest. 600m² lursaila barne. Etxebizitzak 450m². Bistak.

Salgai (Andoain) Arteta kalean 30m²-ko taberna egokitu. Funzionamentuan.
943 69 71 96 • 675 705 268
Korreo Kalea 50



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Alkartasunak babarrun jatea antolatuta du, hilaren 29rako, San Miguel egunerako. Izen-ematea egoitzan bertan, 18:30etik 20:00etara.

Ibarra. 19:30ean, Ibarra plaza, Maite Aranalde zoriontzeko argazkia aterako dute. Izan ere, etzi, igande, 24 urte beteko ditu.

Ibarra. Hilaren 24ean burutuko den *Ibarra, Azoka eta Piparra* azokako antolatzaileek Tolosako artisauei parte hartzeko deialdia luzatu die. Izen-ematea, Kultur Etxean. Ondoren, *Audientzia Nazionala Stop* lelopean, manifestazioa plazatik.

Irura. Haurreskolan matrikulatzeko epea zabalik dago irailaren 29ra arte. Izena emateko orria haurreskolan eska daiteke egunero, 08:00etatik 15:00etara.

Tolosa. Leidor aretoan, 20:30ean, *1.200 kilometro* dokumentala ikusgai, doan. 22:30ean, *El Capitan Alatraste* filma ikusgai.

Villabona. Asteburuan Pirinioetara mendi irteera Aizkardik antolatuta. Izen-ematea, elkartearen edo 943694458an.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Lanbroa tabernan Charo Berraren artelanak ikusgai, hilaren amaierara bitarte.

Alegia. Patxi Tenak Kubako plastika eskola batetik ekarritako artelanak ikusgai, Jubilatuen tabernan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi ebrea. 112.

Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3.

943 67 09 15.

IRRATIA

Txolarre irrati

(107.5, 101.2 FM)

11:00-14:00. *Tolosaldeko* ahotsa

magazina: eguraldia Jose Landarekin,

Hitzaren errepaso, elkarrizketak, ,

agenda, lehiaketa, disko eskainiak...

18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa,

Anoetako Herri Ikastolako DBHko

1. eta 2. mailako ikasleen saioa.

21:00-22:00. *Zaharrak berri.*

22:00-23:00. *Street.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Epaiaren zain...

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Hitzak laugarren edizioko argazki guztiak bildu ditu jada; epaimahaiak etzi emango ditu jakitera zortzi finalistak

'DRAGOIA' ▶

Arantxa Muñoa Arrigain (Tolosa).



«Txinatarrentzat dragoia, besteen artean, izaki babeslea da, eta taoistek bere tenplutan erabiltzen dituzte. Hau zeazki Tai Shan-en dago eta argazki hau atera ahal izateko 6.660 eskaloi igo behar izan genituen!!!». Nekeak merezi zuen, izan ere argazki polita bidali digu tolosarrak gure lehiaketara.



'FIORDOAK' ▶

Jon Garmendia (Ibarra).

«Argazkia hau Norvegiako Preikestolen hirian aterata dago, Fiordoetan, hain zuzen ere. Abuztuaren 21etik 25era txalaparta emanaldia emateko joan ginen eta paisaia polit hontan egin genuen saioetako bat, 600 metroko haitza da». Harrigarria izango da, ziur, altuera horretan txalaparta jotzea. Halaxe azaldu digu, behintzat, Jon ibartarrak



'SOASSOKO UR JAUZIA' ▶

Patxi Ezeiza Jauregi (Tolosa).

Paisaiak beti dira ikusgarriak eta Patxi bidali diguna ere ez da atzean geratzen. «Argazki hau abuztuan atera genuen Ordesan. Iruditan, Soassoko ur jautzia ageri da eta Ordesatik Perdido bidean dago. Mendi buelta egin ondoren, jende askok toki hau aukeratu du freskatu eta deskantsu hartzeko», azaldu digu tolosar honek.



'TENERIFE' ▶

Txema Zabala (Tolosa).

«Abuztuan Tenerifen egon gara familia osoa. Hango paisaia bolkanikoak zoragarriak dira. Argazkian azaltzen dira Akantilado de los gigantes izenekoak itsaslabarra. Hango paretak, 600 metro altzatzen dira itxasotik lainoraino». Aurreko argazkia bezalaxe, hau ere ikusgarria da; Txema Zabala tolosarra izan da egilea.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Gaur
1. kupoa
berriarekin



AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**